



TOLOSAKO  
UDALA

## **OHIKO OSOKO BILKURA**

**2019.01.29**

Tolosako Udaletxean, 2019ko urtarrilaren 29an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 29 de enero de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Kristina Pelaez Errazkin  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:  
Ibai Iriarte San Vicente  
Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

### **Orden del día**

1. Ondorengo aktak onartzea:  
2018ko abenduaren 4ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.  
2018ko abenduaren 10eko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguientes actas:  
Sesión ordinaria del 4 de diciembre de 2018.  
Sesión extraordinaria del 10 de diciembre de 2018.



TOLOSAKO  
UDALA

- |  |   |
|--|---|
| 2. Onartzea Obra lantaldeko udal langileen lan baldintzen erregularizazioa eta Lanpostu zerrendaren aldaketa.  | 2. Aprobación de la regularización de las condiciones del personal de la Brigada de Obras y modificación de la relación de puestos de trabajo.            |
| 3. Udaleko Izapideen Eskuliburua onartzea.   | 3. Aprobación del manual de trámites del Ayuntamiento.  |
| 4. Onartzea Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuko buruaren lanpostuko administrazio-eskalaren aldaketa.  | 4. Aprobación de la modificación de la escala administrativa del puesto de trabajo del/la jefe/jefa del Departamento de Política Lingüística y Educación. |
| 5. Onartzea Kontratazioko Mahai Iraunkorraren osaera.  | 5. Aprobación de la composición de la Mesa Permanente de Contratación.  |
| 6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko abenduaren 1etik 31ra. (2018/2.203 – 2018/2.370).  | 6. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de diciembre de 2018 (2018/2.203- 2018/2.370).                                       |
| 7. Mozioa: Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua indartzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskaera.  | 7. Moción para solicitar el refuerzo y la creación de nuevos puestos de trabajo en el Servicio Foral de Bomberos/as de Gipuzkoa.                          |
| 8. Lucas Ugarte Plaza tolosarraren gorpuzkinak "Erorien Arana"-tik herritaratzeko eskaeraren inguruko mozioa.  | 8. Moción sobre la petición de traslado desde el Valle de los Caídos de los restos mortales del tolosarra Lucas Ugarte Plaza.                             |
| 9. Frankismoaren aurkako mobilizazioetan, bere garaian parte hartu izanagatik Tolosaldean torturatuak izan ziren herritarren aldeko elkartasuna adierazteko. | 9. Moción en apoyo de las personas torturadas en Tolosaldea por participar en movilizaciones contra el franquismo.  |
| 10. Galderak eta eskaerak.   | 10. Ruegos y preguntas.   |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Ondorengo aktak onartzea:**  
**2018ko abenduaren 4ko Ohiko**  
**Osoko Bilkurakoa.**  
**2018ko abenduaren 10eko**  
**Aparteko Osoko Bilkurakoa.**

1. **Aprobación de la siguientes actas:**  
**Sesión ordinaria del 4 de diciembre**  
**de 2018.**  
**Sesión extraordinaria del 10 de**  
**diciembre de 2018.**

Izenburuan aipatutako aktak aho batez **onartu** dira.



2. Onartzea Obra lantaldeko udal langileen lan baldintzen erregularizazioa eta Lanpostu zerrendaren aldaketa.
2. Aprobación de la regularización de las condiciones del personal de la Brigada de Obras y modificación de la relación de puestos de trabajo.

Alkateak azalpenak eman ditu irizpena azalduz.

## GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO URTARRILAREN 22KO IRIZPENA

### AURREKARIAK

laz, Brigadako lan taldearen ohizko kanpoko orduen azterketa bat egiten hasi zen. Honetarako esan behar da brigadaren ohizko lan ordutegia oro har, astelehenetik ostiralera dela, goizeko 7,00tatik eguerdiko 14,00ak arte; honetaz gain, egutegian hiru azoka berezi aurreikusiak izan dituzte orain arte non larunbatean hamar ordu lan egiten zuten.

Hemendik at hainbat ekintza, ikuskizun, azoka berezi etab... egoten dira eta honek, beste hainbat lan ekartzen ditu urtean zehar. Lan hauek lanaldiz kanpoko aparteko orduen bidez egiten ziren orain arte, egutegian aurreikusiak ez zeudelako eta udal hitzarmenak dioenaren arabera hauek denboran disfrutatu beharko lirateke nahiz eta orain arte hauek dirutan ordaintzen ziren.

Honela, lantaldearen egutegia eta urtean zehar dauden ikuskizun eta azpiegituren montaien antolaketa aztertu aurretik, azken hiru urte hauetako datuen berri emango dira:

| Urtea | Aparteko ordu kopurua | Zenbatekoa |
|-------|-----------------------|------------|
| 2.015 | 621,25                | 19.555,89  |
| 2.016 | 669,50                | 19.502,33  |
| 2.017 | 639,30                | 18.689,12  |



TOLOSAKO  
UDALA

Ekintzei dagokionez, brigadako lan taldearekin lan egiten duten departamentu ezberdinek emandako datuak kontuan hartuz, aipatu langileek ohiko ordutegiz kanpo lan egiten duten ekintzen zerrenda egin da ( adibide gisa hauexek: zuhaitz azoka, txuleta azoka berezia, landare azoka, braderie, garagardo festa, mikologikoa, babarrun azoka, San silvestre krosa, erregeak, olentzeroak, iñauteriak edota San Juanak).

Datu hauek ikusi ondoren, hemendik ondorioztatu daiteke urtean zehar batz besterik 625 ordu sartzen direla baina hauetan ez daude sartuak hiru azoka berezi ( egutegian aurreikusitako zeudenak orain arte) eta horregatik hauek guztiak batu ondoren eta kontuan hartuta lantaldeko 10 langilek parte hartuko dutela lan baldintzen akordio proposamen berri honetan (larunbatetan lan egiten duen peoiak akordio honen aplikaziotik at geratu da), guztira langile bakoitzak 92,50 ordu urtean sartu beharko dituzte batz besterik prestutasun kontzeptuan, udalak dituen zerbitzuen beharrei aurre egiteko.

Egoera berri hau bideratzeko, brigadako lan taldearekin bilera ezberdinak egin dira urria, azaroa eta abenduko hilabetetan, eta horren ondorio bezala, aipatu taldearen lan baldintzak eta prestutasuna ezartzeko akordioaren oinarriak ezarri dira, guztira 2018ko abenduaren 28an Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordean diktaminatua izan zena.

Honela, adostutako oinarri horiek hauexek lirateke:

**1.- Ohiko lansaiotik kanpoko orduen kopurua:** 92 ordu 15 min. langile bakoitzeko, beti ere urteko ordu kopuru osoa 1.592 direla kontuan hartuta.

**2.- Langile-kopurua:** 10.

Momentu honetan hamaika langile gehi enkargatua leudeke baina arestian esan bezala, akordio honetatik kanpo larunbatetan Zerkausian lan egiten duen peioa geratu da, horregatik 10 langile barnebiltzen ditu akordioak.

**3.- Egutegia:**

Eranskin gisa Brigadako lantaldearen egutegia eta lanaldiz kanpo langile bakoitzak jardun behar dituen egunak eta orduak azaltzen dira. Egutegi hau Giza Baliabide eta Udal antolakuntza batzordeak diktaminatu ostean, Udalbatzak onartu beharko du lan baldintzen arauketa hau, dagokion aldaketa eginaz lanpostu zerrendan.



**4.- Prestutasunagatiko osagarria (balorazioa egiten den bitartean): % 8a.**

Osagarri hau behin-behineko izaeraz jartzea proposatzen da, berez lanpostuaren balorazio bat egin ondoren, hau finkatu beharko litzatekeelako. Momentu honetan eta 2018 urte hasieran egin zen nominaren egokitzapenaren ondorioz, egun Tolosako udalean dagoen Balorazio eskuliburua ezin da erabili, osagarriak kalkulatzeko faktoreak eta graduazioetan desajuste teknikoak sortu direlako; horregatik bigarren fase batean, lanpostuen balorazioa egiten denean, prestutasunagatiko portzentai hori gainbegiratuko da.

**5.- Bestelako akordioak:**

**a) Egutegian ez aurreikusitako zerbitzuak, ohiko lansaiotik kanpo:** Ordu bereziak. Retribuzioa: dirutan, edo orduetan, langileak aukeratuta.

**b) Langilea bajaran egongo balitz, % 8a mantenduko da.**

**c) Udalhitz hitzarmenak aurreikusitako** lizentzia edo baimenengatik langile bat faltako balitz eta bere ordez beste batek etorri beharko balu, langile honen orduak aparteko ordu bezala kontatuko dira.

**d) Ez aurreikusitako kasu bat egongo balitz,** lau egun lehenago jakinaraztea saiatuko da.

**e) 2,5 edo gutxiagoko lanaldiak** 3 orduko lanaldi bezala kontatu behar zaie.

**6.- Oraingo ordutegia mantenduko da, zera, 7 orduko lanaldia, eta ondoko era honetan konpentsatuko zaie: 5:15 opor egun.**

## ONARTZEKO PROZEDURA

Akordio hau izapidetzeko udaleko Lanpostu zerrenda aldatu beharko da, aipatutako lanpostuei % 8ko prestatasuna onartuaz eta dagokion gastua onartuaz.

**a) LANPOSTU ZERRENDA**

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "*Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei



TOLOSAKO  
UDALA

dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitakoren arabera.



TOLOSAKO  
UDALA

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

## **b) PRESTUTASUNA**

Tolosako udaleko lan baldintza erregulatzen dituen hitzarmenak honakoa esaten du prestutasunaren eta dedikazioaren inguruan:

*“ 74. artikulua.- Lanaldi Luzatua Modalitatea*

*1. Urtean 93 ordu benetako lan egitea saritzen du Lanaldi Luzatua Modalitateak; lanaldi zatituan, txandakako erregimenean eta, Erakundeak bere Lanpostuen Zerrendan horrela zehazten badu, larunbatetan eta jaiegunetan egin daitezke ordu horiek, langileen ordezkariekin negoziatu eta gero eta irizpide murriztailearekin eta berezituarekin.*

*2. Lanaldi Luzatua duten lanpostuek Soldata, Lanpostu-Mailako Osagarria eta lanpostuari egonkor lotu gabeko Tarte Bereziko Berariazko Osagarria batzean lortzen den kopuruaren %10a baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik.*

*“75. artikulua.- Erabateko Baliagarritasuna Modalitatea*

*1. Erabateko Baliagarritasuna modalitateak berarekin dakar:*

- a) Eremu publikoan zein pribatuan irabaziko jarduerarik ezin egin izatea.*
- b) Lanpostu baten titularrak bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko baliagarritasun osoa izan behar du bere lanalditik kanpoko orduetan, ordutegi malguarekin; zerbitzuaren premiagatik edo larrialdi egoera baten bere zerbitzuak eskatzen direnean, baliagarritasun osoa modalitateko lanpostu baten titularrak joan lanlekura joan beharko du, eta horren barruan*



*joan-etorriak sartzen dira, eta antzeko beste eskaera batzuk ere bete beharko ditu.*

- c) Lanalditik kanpo edo atsedendietan egindako aparteko orduengatik jaso beharreko diru-konpentsazioa eskuratzeko eskubidetik kanpo geratzen dira modalitate honetako lanpostuen titularrak.*
  - d) Zerbitzu arrazoiengatik dedikazio hori indarrean jartzea beharrezkoa ez balitz, ez du diru eragin kaltegarririk izango.*
  - e) Erakundeak aukera izango du lanpostuaren egutegia eta ordutegia aldatzeko zerbitzuaren beharrezan araber, baina horretarako aldaketa horren berri eman beharko du gutxieneko denbora tarte baten barruan.*
- 2. Lanaldi Luzatua duten lanpostuek Soldata, Lanpostu-Mailako Osagarria eta Tarte Bereziko Berariazko Osagarria batzean lortzen den kopuruaren %10a baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik*

#### *76. artikulua. - Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatua Modalitatea*

- 1. Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatuak aurretik aipatutako bi kontzeptuak saritzen ditu aldi berean, lanaldi luzatua eta erabateko baliagarritasuna, beren errekerimenduekin eta inplikazioekin.*
- 2. Prestasun Absolutuko Lanaldi Luzatuari dagokion beharkizuna duten lanpostuek Soldata, Destinoarengatiko Osagarria eta Tarte Orokorreko Osagarri Berezia batzearen emaitzako zenbatekoaren % 25a jaso ahal izango dute gehienez kontzeptu horregatik.”*

#### **c) NEGOZIAZIOA ORDEZKARI SINDIKALEKIN**

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 37. artikulua honako xedatzen du:

##### **“Artículo 37 Materias objeto de negociación**

*1. Serán objeto de negociación, en su ámbito respectivo y en relación con las competencias de cada Administración Pública y con el alcance que legalmente proceda en cada caso, las materias siguientes:*

*a) La aplicación del incremento de las retribuciones del personal al servicio de las Administraciones Públicas que se establezca en la Ley de Presupuestos Generales del Estado y de las Comunidades Autónomas.*

*b) La determinación y aplicación de las retribuciones complementarias de los funcionarios.*





TOLOSAKO  
UDALA

- c) Las normas que fijen los criterios generales en materia de acceso, carrera, provisión, sistemas de clasificación de puestos de trabajo, y planes e instrumentos de planificación de recursos humanos.*
- d) Las normas que fijen los criterios y mecanismos generales en materia de evaluación del desempeño.*
- e) Los planes de Previsión Social Complementaria.*
- f) Los criterios generales de los planes y fondos para la formación y la promoción interna.*
- g) Los criterios generales para la determinación de prestaciones sociales y pensiones de clases pasivas.*
- h) Las propuestas sobre derechos sindicales y de participación.*
- i) Los criterios generales de acción social.*
- j) Las que así se establezcan en la normativa de prevención de riesgos laborales.*
- k) Las que afecten a las condiciones de trabajo y a las retribuciones de los funcionarios, cuya regulación exija norma con rango de Ley.*
- l) Los criterios generales sobre ofertas de empleo público.*
- m) Las referidas a calendario laboral, horarios, jornadas, vacaciones, permisos, movilidad funcional y geográfica, así como los criterios generales sobre la planificación estratégica de los recursos humanos, en aquellos aspectos que afecten a condiciones de trabajo de los empleados públicos. “***

Negoiazio hauek 2018 urteko urria, azaroa eta abenduko hilabetetan zehar burutu dira.

#### **d) PROZEDURA**

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legarean 22.2 i) artikularen arabera, Udaltzarak eskuduntza du gai hau onartzeko. Udaltzabara joan aurretik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak diktaminatu beharko du.

- Bestetik, TATBko 127 artikularen baitan, plantilla organikoaren prozedura berdina jarraituaz, behin udaltzarak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegunetako epean informazio publikoan eduki



TOLOSAKO  
UDALA

beharko da onartutako akordio hau. Alegazioarik ez badago, hau onartutzat joko da behin-betiko izaeraz.

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak Olatz Peon, Iñigo Alonso, Iñaki Irazabalbeitia eta Cristian Fernandezen aldeko botuarekin, hauxe da eman duen

## IRIZPENA

**Lehenik.-** Udaleko Lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea, obra Lantaldeko ofiziala, bi gidari eta zazpi peoi lanpostuei % 8ko prestutasuna finkatuaz, irizpenean azaltzen diren xehetasunekin.

**Bigarrenik.-** Aldaketa honi aurre egiteko 22.901,47 eurotako gastua onartzea, erasnkinean azaltzen den xehetasunekin.

**Hirugarrenik.-** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 lanegunetan informazio publikoan edukitzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Obra lantaldeko udal langileen lan baldintzen erregularizazioa eta Lanpostu zerrendaren aldaketa.

### **3. Udaleko Izapideen Eskuliburua    3. Aprobación del manual de trámites del Ayuntamiento.**

Alkateak azalpenak eman ditu irizpena azalduz.



TOLOSAKO  
UDALA

## **GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO URTARRILAREN 22KO IRIZPENA**

Tolosako Udalak, 2017. urtean ekin zion Izapide edo Tramiteen Eskuliburua (katalogoa) idazteari; lehen fasean, HAEE-IVAP eta EUDELein sinatutako hitzarmen baten babesean; ondoren, 2018an, Udate-Herritarren Arreta Zerbitzua berregituratzeko prozesuan, Otxandio&Team Consulting aholkulariaren laguntzaz. Egitasmoaren helburua izan da, herritarren ekimenez sustaturiko administrazio-prozedurak berrikustea, arrazionalizatzea eta erraztea eta, halaber, herritarren arreta zerbitzu integrala diseinatzea eta antolatzea; aurreko guztiak herritarrei zerbitzua ematea du xede, herritarrek udalera iristeko erraztasuna izan dezaten eta herritarren eta udalaren arteko komunikazioa eta harremana errazagoa izan dadin. Hauekin batera, sail ezberdinetako arduradunek eta Alkatetzak adostu dute hobekuntzen zerrenda bat (izapideak sinplifikatzeko, komunikazioak errazteko, lanaldiak antolatzeko, etab.), eta horiekin lotutako egutegia.

Prozesu honetan zehar, Tolosako Udaleko Departamentu ezberdinek administrazio-prozedurak berrikusi, arrazionalizatu eta errazteko irizpideak jarri dituzte, eta horiek agiri batean jaso dituzte, behargabeko luzamenduak saihestu eta zama administratiboak murrizte aldera. Halaber, Euskara eta Berdintasun sailek idatzizko testuak aztertu eta zuzendu dituzte.

Tolosako udaleko web orrian, "Tolosako Udalaren Udal Zerbitzu Telematikoak" atarian

(<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=071&hizkuntza=EU>) ([Udal Zerbitzu Telematikoak](#)) modu elektronikoan jasotzen da era antolatu eta sistematikoan administrazio-izapide guztien funtsezko informazioa. Besteak beste, honako eduki hauek jaso dira, herritarrek ondo ulertzeko hizkuntzan:

- **Prozedura bakoitzaren esanahia.**
- **Nork eska dezakeen.**
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**
- **Zer bitartekoren bidez izapidetu daitekeen (presentziala, telematiko...).**
- **Betebehar ekonomikoak, halakorik izanez gero.**
- **Izapidetzeko epea eta isiltasun administratiboaren ondorioa.**
- **Araudia.**
- **Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura.**
- **Bete beharreko dokumentuen ereduak, halakorik izanez gero.**
- **Organo ebazlea**



TOLOSAKO  
UDALA

- **Izapidetzeko ardura duen udal saila.**
- **Argibideak (barne erabilerarako)**

Era berean, izapideen eskuliburua kudeatzeko IZFEren tresna informatiko bat erabili da: **ZERBIKAT**. Tresna horrek izapideak estandarizatzea eta sistematizatzea ahalbidetu du, eta etorkizunean prozedurak etengabe eguneratzea ahalbidetuko du.

Izapideen katalogoaren helburu hauek dira:

- Tolosako Udalaren ezagutza dokumentatu eta erregistratu, udal antolamenduari eta herritargoari irisgarri egiteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1. artikulua eta f) letra eta 21.4. artikulua betez.
- Udate-Herritarren Arreta Zerbitzuaren kalitatea hobetzea; izan ere, zerbitzu hori izango da oinarrizko eta ezinbesteko tresna osoa, udal leihatila bakarraren printzipioa betetzeko.
- Lan egiteko moduak estandarizatzea eta normalizatzea.
- Herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoetan kudeaketa eraginkorragoa eta kalitatezkoa lortzea.
- Udal kudeaketaren gardentasunari laguntzea.
- Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kultura sartzea antolakuntzan.
- Antolakuntzako pertsonen parte-hartzea eta talde-lana sustatzea.
- Prozeduren kudeaketan Administrazio Elektronikorako trantsizioan laguntzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatutakoak betez.

Eskuliburua prestatzeko prozesua 2017ko martxoan hasita bete da; ordezkari politikoek eta sail guztietako teknikari eta administrariak hainbat saio egin dituzte eta ahalegin horren ondorioz gauzatu da Tolosako Udalaren Izapide edo Tramiteen Eskuliburua.

Halaber, proiektua egikaritzeko garaian aintzat hartu dira, Tolosak bezala, euren prozedura-eskuliburua landu duten beste udal batzuetako ekarpenak.

Eskuliburuaren onarpenarekin Tolosako Udalak bete egiten du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 53. artikuluko f) atalean bete beharrekotzat ezartzen den eskubidea, hau da: herritarrek orientazioa eta informazioa eskuratzeko eskubidea, egin nahi dituzten proiektu, jardura edo eskaerarako indarrean diren xedapenek



TOLOSAKO  
UDALA

ezartzen dituzten baldintza juridiko edo teknikoei buruz; Udalak herritarren esku jartzen dituen komunikazio-bideen bitartez; eta herritarrei informazio unibokoa, ofiziala, ulerterraza ematea, idatziz, herritarrek udal administrazioarekin harremanetan jartzeko aukeratzen duten bidea edozein dela-ere.

Bestalde, eskuliburuak bete egin du Lege horren 21.4. artikuluan ezartzen den betebeharra: *“Administrazio publikoek argitaratu eta eguneratuta eduki behar dituzte webgunean, jendearen informaziorako, beren eskumeneko prozeduren zerrendak, haien gehieneko iraupenak eta administrazio-isiltasunaren ondorioak adierazirik.”*.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea eskuliburua ez dela behin betiko agiri bat, baizik eta etengabe egokitu beharko zaiela lege-aldaketei eta Udalaren beraren antolaketa-aldaketei.

Azaldutako guztiagatik, udalbatza plenoari ondorengo irizpena onartzea proposatzen zaio:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Onartzea *Tolosako Udaleko administrazio-izapideen eskuliburua*, Tolosako udaleko web orrian -Udal Zerbitzu Telematikoak deituriko atalean-, ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena:

(<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=071&hizkuntza=EU> ).

Izapideen eskuliburuak era antolatu eta sistematikoan jasotzen du udalaren administrazio-izapide guztien funtsezko informazioa, herritarrei zuzenean eragiten diena, hartzaileek erraz ulertzeko moduan azaldua:

- **Prozedura bakoitzaren esanahia.**
- **Nork eska dezakeen.**
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**
- **Zer bitartekoren bidez izapidetu daitekeen (presentziala, telematiko...).**
- **Betebehar ekonomikoak, halakorik izanez gero.**
- **Izapidetzeko epea eta isiltasun administratiboaren ondorioa.**



TOLOSAKO  
UDALA

- **Araudia.**
- **Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura**
- **Bete beharreko dokumentuen ereduak, halakorik izanez gero.**
- **Organo ebazlea**
- **Izapidetzeko ardura duen udal saila.**
- **Argibideak (barne erabilerarako).**

Halaber, eskuliburuan jasotako informazioak kontuan hartuko du 3/2018 Legeak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoak, xedaturikoa.

**BIGARRENA.-** Izapideen eskuliburua etengabe eguneratzea. Horretarako, udal sailetakoko teknikari arduradunei ahalmena ematea eta agintzea, beharrezko aldaketa eta eguneratzeak bultzatu ditzaten, Tolosako udalak hartutako ebazpenetan eta araudietan xedaturikoa jasoz.

**HIRUGARRENA.-** Izaera tekniko-politikoko lantalde bat eratzea, administrazio prozedura bakoitzaren fitxetako edukia berrikusteko eta eguneratua mantentzeko funtzio nagusia izango duena, bai paperezko euskarrian baita elektronikoa ere, legezko aldaketak edota antolaketako hobekuntzak dauden bakoitzean, eta edozein kasuan, urtean behin gutxienez elkartuko dena, herritarrei aurrez aurre (UDATE), telefonoz eta Internet (udal web orria) komunikazio kanaletatik iristen zaien informazioa unibokoa, ofiziala eta indarrean dagoena dela bermatzeko.

Honako hauek osatuko dute lantalde hori:

- Koordinatzaile politikoa: alkatea edo hark izendatzen duen zinegotzia.
- Koordinatzaile juridikoa: kontu-hartzailea eta udal idazkaria.
- Koordinatzaile informatikoa: Izapide Espedienteen administraria
- Departamentu bakoitzeko arduraduna.

Halaber, lantaldean parte hartuko dute, eguneratu beharreko prozedura-familiaren baitan, hauen izapidetzeko espezializatutako pertsonal tekniko zein administratiboek, eta hauek prozedura bakoitzean izandako aldaketak ahalik eta epe motzengan komunikatu beharko dizkiete taldeko koordinatzaileei, "Eskuliburu" honetako informazioa eguneratua mantentzeko helburuarekin.



TOLOSAKO  
UDALA

**LAUGARRENA.-** Lantaldearen funtzionamendurako ondoko irizpide orokorrak onartzea:

1. Sail bakoitzak erreferente bat izendatu behar du Udaterekin harremana izan dezan. Saileko erreferentea, besteak beste, arduratuko da eskuliburuan sartutako aldaketen berri Udatari emateaz.
2. Era berean, sail bakoitzeko arduradunak bere gain hartuko du saileko izapideen informazioa ZERBIKAT aplikazio informatikoan etengabe eguneratzeko zeregina.
3. Indarreko prozeduren eskuliburua beti izango da ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena.

**BOSTGARRENA.-** Tolosako Udalaren prozeduren eskuliburua udalaren egoitza elektronikoan eguneratuta argitaratuta edukitzea.,

**SEIGARRENA.-** Ebazpen hau web orrian argitaratzea eta ahalik eta gehien zabaltzea udal zinegotzi eta langile guztiei.

**EGINBIDEA:** Irizpen hau aztertu eta aho batez onartu zen Tolosako udaleko Giza Baliabideak eta Barne Antolakuntzako Batzorde Informatiboan premiazko izaeraz, 2019ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Iñigo Alonso, Olatz Peón, Iñaki Irazabalbeitia eta Cristian Fernández.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udaleko administrazio-izapideen eskuliburua, Tolosako udaleko web orrian -Udal Zerbitzu Telematikoak deituriko atalean-, ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena.



4. Onartzea Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuko buruaren lanpostuko administrazio-eskalaren aldatzea.
4. Aprobación de la modificación de la escala administrativa del puesto de trabajo del/la jefe/jefa del Departamento de Política Lingüística y Educación.

Parte-hartzeak:

- ... Alkatea: "2018ko abenduaren 10ean, onartu genuen Udalbatza honetan, 2018ko urteko lanpostuen zerrenda. Horien artean, Euskara eta Hezkuntza departamentuko arduradunaren lanpostua zegoen. Lanpostu horretarako sarbideko titulu gisa Euskal Filologia lizentziatura ezarrita dago. Orain proposatzen dena da Euskara eta Hezkuntzako departamentuko buruaren lanpostua betetzeko baldintzak aldatzea eta sarbide titulua mugatu gabea izatea. Hau da, lizentziatura, gradua, doktoretza edo ingeniartzako titulueta irekia utziz."
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): "Herritarrari jakinarazteko. Agian, baten batek pentsatu dezake Euskal Filologia izatea normala dela baina kontutan izan behar da Udaletxean saileko arduradunak kudeaketa ardura daukala, ez dela jakintzaren kudeaketa. Kudeaketarako, printzipioz, titulua duen edozein lizentziatura balio dezake. Ez mugatzeak aukerak zabaltzen ditu. Egokiagoa da, izan ere, Euskal filologiarekin, printzipioz, filologiaz daki ez kudeaketaz."

-----

**GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA BATZORDE  
INFORMATIBOAREN 2018KO ABENDUAREN 28KO IRIZPENA**

### **AURREKARIAK**

2018ko abenduaren 10ean, Tolosako Udaleko udalbatzak, 2018ko lanpostuen zerrenda onartu zuen; horien artean, Euskara eta Hezkuntza departamentuko arduradunaren lanpostua. Lanpostu hori, Tolosako Udalean Administrazio Bereziaren barnean sailkatzen da, goi-teknikari mailan, eta lanposturako sarbideko titulu gisa Euskal Filologia lizentziatura ezarrita dago.

Ebazpen honi atxikitzen zaio lanpostuko deskribapena, eta bertan agertzen dira lanpostuaren funtzioak .





## **OINARRI JURIDIKOA**

Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onetsi duen *apirilaren 18ko 781/1986* Legegintzako Errege Dekretuko 167.artikuluak, karrerarako funtzionarioak Administrazio Orokorrean eta Administrazio Berezian banatzen direla xedatzen du: *"Los funcionarios de carrera de la Administración Local que no tengan habilitación de carácter nacional se integrarán en las escalas de Administración General y Administración Especial de cada Corporación, que quedarán agrupadas conforme a lo dispuesto en la legislación básica del Estado sobre función pública, en los grupos que éste determine, de acuerdo con la titulación exigida para su ingreso"*.

Era berean, Administrazio Orokorrearen barnean, zein lanpostu sartzen diren xedatzen du:

- *Artículo 169: Corresponde a los funcionarios de la Escala de Administración General el desempeño de funciones comunes al ejercicio de la actividad administrativa. En consecuencia, los puestos de trabajo predominantemente burocráticos habrán de ser desempeñados por funcionarios técnicos, de gestión, administrativos o auxiliares de Administración General.*

Eta hurrengo bi artikuluetan berriz Administrazio Berezi gisa zer motatako lanpostuak kontsideratzen diren zehazten du:

*Artículo 170: Tendrán la consideración de funcionarios de Administración Especial los que tengan atribuido el desempeño de las funciones que constituyen el objeto peculiar de una carrera, profesión, arte u oficio.*

*Artículo 171: Pertenece a la Subescala Técnica de Administración Especial los funcionarios que desarrollen tareas que son objeto de una carrera para cuyo ejercicio exigen las leyes estar en posesión de determinados títulos académicos o profesionales.*

Gainera, kontutan hartu behar da Unibertsitate mailan emandako Bologna erreforma prozesua dela eta, lizentziatura eta graduak parekatu direla, beste



TOLOSAKO  
UDALA

hainbat sortu direla, eta, aipatutako lanpostuaren funtzioak kontutan hartuta, egun badirela hainbat ikasketa tituluetakoa profesionalak lanpostu hori bete dezaketenak, esate baterako, espezialitate hauetakoak: Itzulpengintza eta interpretazio gradua, Kazetaritzako gradua, Irakasle ikasketetan gradua, Ikus-entzunezko komunikazioan gradua, e.a.

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak Olatz Peon, Iñigo Alonso, Nerea Letamendia, Joseba Ormazabal, Iñaki Irazabalbeitia eta Cristian Fernandezen aldeko botuarekin, hauxe da eman duen

### IRIZPENA

**LEHENIK.-** Euskara eta Hezkuntza departamentuko buruaren lanpostua betetzeko baldintzak aldatzea: Administrazio Orokorraren barnean sailkatuz eta sarbide titulua mugatu gabe, lizentziatura, gradua, doktoretza edo ingeniarietako tituluak irekita utziz (lanpostuen zerrendan 500 kodea).

**BIGARRENIK.-** Lanpostuen zerrenda aldatzea eta Giza Baliabide eta Udal Antolakuntzaren hurrengo batzordean jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuko buruaren lanpostuko administrazio-eskalaren aldaketa.



TOLOSAKO  
UDALA

## **5. Onartzea Kontratazioko Mahai Iraunkorraren osaera.** **5. Aprobación de la composición de la Mesa Permanente de Contratación.**

Parte-hartzeak:

... Alkatea: *“Kontratazio legea aldatu egin da aurten. Hori dela eta, pixka bat kontratazio mahai osaketa horretan legera etortzen gara proposamen honekin. Kontratazio mahai iraunkor bat osatzeko proposamen honen ezaugarri nagusiak dira, alde batetik, kontratazio mahaiko burua korporazioko kide bat edo funtzionario bat izan liteke. Derrigorrezko mahai iraunkorreko kideak izango dira Idazkaria, alde batetik, aholkularitza juridiko emateko eta beste aldetik, Kontuhartzailea ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duena. Gainontzeko kideek kontratazio organoak aukeratzen ditu funtzionario langileen edo zinegotzien artean. Kontratazio mahaia osatu egin behar da, gutxienez hiru kideekin eta, dakizuen bezala, hautetsiak ezin dute mahai heren hori gainditu. Mahaiko Idazkaria izango da funtzionario bat eta behin behineko langileek ezin dute mahai osatu edo balorazio txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte ahal izango dute, soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionarioez ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean. Orduan, irizpenean proposatzen da mahai iraunkor horren osaketan mahaikideak izatea titularrak, alde batetik lehendakaria- alkate udal burua; lehenengo bokala Udal Idazkaria; bigarren bokala Udal Kontuhartzailea eta mahaiko Idazkaria, botorik ez duena, kontratazioko Administrazio Orokorreko Teknikaria. Bakoitzak bere ordezkoa izango du.”*

-----

### **GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2019KO URTARRILAREN 22KO IRIZPENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, Kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipaturiko Legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratatzeke eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoez kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoez, salbu eta 168. artikulua b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea..*



TOLOSAKO  
UDALA

Tokiko entitateen kasuan, kontratazio mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.
- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kidek osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean
- **Mahaiaren osaketa Kontratugilearen Profilean argitaratu behar da.** Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.

Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

- a) 9/2017 Legearen 140 eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagirak kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatzailleak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatzailen proposamenak baloratzeta.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegitzat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.



TOLOSAKO  
UDALA

e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.

Bestaldetik, Kontratazio Mahaiek izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, Kontratazio Mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.

Halaber, Tolosako udalaren kasuan, Kontratazio Teknikariari dagozkion funtzioak betetzen dituen langilea, bitarteko funtzionarioa da, Administrazio Orokorreko Teknikaria. Udal plantila aztertu ondoren, ez dago beste pertsonal aditurik kontratazio publikoaren arloan. Arrazoi hauek kontuan hartuta, mahaikide gisa izendatzea proposatzen da.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, bere 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazioko Mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organoak izendatuko ditu.

Beraz, proposamen honek eragiten ditu Tolosako Udalbatza Plenoko eskumeneko kontratazio-jardunbideak.



TOLOSAKO  
UDALA

Horregatik guztiagatik, Tolosako udaleko Giza Baliabide eta Barne Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, ondoko Irizpenaren onespena proposatu dio udalbatza plenoari:

### **IRIZPENA**

**LEHENA.-** Tolosako udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea, udalbatza plenoak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.

**BIGARRENA.-** Kontratazio Mahai Iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea::

### **Titularrak**

- Lehendakaria: Alkate-Udalburua, Olatz Peon Ormazabal.
- 1. Bokala: Udal Idazkaria, Begoña Garmendia Vazquez
- 2. Bokala: Udal Kontuhartzailea, Ainhoa Molinos Zubiaurre.
- Idazkaria (botorik gabe): Kontratazioko A.O.Teknikaria, Francisco Javier Araniguría Rodrigo.

### **Ordezkoak**

- Lehendakariaren ordezkoa: Patxi Amantegi Zubiria.
- 1. Bokalaren ordezkoa: Karmele Contreras Goikoetxea
- 2. Bokalaren ordezkoa: Paulino Alonso Eraso
- Idazkaria (botorik gabe): Elisabete Aramendi Aguirrezabalaga

**HIRUGARRENA.** Kontratazioko Mahai Iraunkorreko kideen ordezkapena ondoko kasuetan emango da: hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.

**LAUGARRENA.-** Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, Kontratazio Mahai Iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute aztertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota mahaiak izendaturiko aholkulari adituek. Pertsona hauek hitza izango dute baina ez dute boto eskubiderik izango.



TOLOSAKO  
UDALA

**BOSTGARRENA.-** Mahaiaren bilkuretan ondoko araubide juridikoa izango da aplikagarria:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.
- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, nauetan arautzen ez diren gaietan

**SEIGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako udaleko web orrian argitaratzea.

**EGINBIDEA:** Irizpen hau aztertu eta gehiengoz onartu zen Tolosako udaleko Giza Baliabideak eta Barne Antolakuntzako Batzorde Informatiboan premiazko izaeraz, 2019ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko botoak:** Iñigo Alonso, Olatz Peón, eta Cristian Fernández.
- **Abstentzioak:** Iñaki Irazabalbeitia

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea, udalbatza plenoak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.



TOLOSAKO  
UDALA

**6. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko abenduaren 1etik 31ra.(2018/2.203 – 2018/2.370).**

Alkatetzak 2018ko abenduaren 1etik 31ra bitartean (2018/2.203-2018/2.370) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**6. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31 de diciembre de 2018 (2018/2.203-2018/2.370).**

**7. Mozioa: Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua indartzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskaera.**

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Gure ustez, udaletxea elkarrizketaren bidez planifikazio egoki bat da garrantzitsua. Batzuetan erabakiak hartu dira ondo esplikatu gabe. Lehenik eta behin bien arteko elkarrizketa egon behar du, dauden beharrak ezagutzeko eta aurre egiteko. Horregatik, nire botoa abstentzioa izango da.”*

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBildu) : *“Hemen suhiltzaile batzuk daude eta nahiko balute hitza hartu ez dakit zein den momentu egokia. Hala ere, gogoratzea batzar nagusietan plan hau onartuta dagoela eta plan honekin batera ere onartuta daudela mozio batzuk ere bai, non eskatzen zen lehenestea pertsonal faltari aurre egite hori. Guk honen aurretik aurkeztutako geneukan beste mozio bat non eskaera nagusia zen ahalik eta azkarren edo aurten behintzat 48 lanpostu berri sortzea gaur egun daukaten egoerari aurre egiteko. Ulertzen dugu mozio hau adostasunez aurkeztea indar gehiago daukala Foru Aldundian horri bide emateko behintzat. Baina gogoratu nahi dugu ere bai guretzat lehentasuna handiena dela plan guzti horretan, nahiz eta gauza asko kontutan edukitzen diren eta asko adostu diren, lehentasuna daukala dela pertsonal faltari aurre egitea. Beharrezkoa ikusten dugula 48 lanpostu horiek sortzea gaur egun beraiek lanean dauden suhiltzaile berak betetzen dituztelako bai momentuan gertatzen diren bajak ordezkatzeko hori eta baita ere aurrez ikusita dauden beste baja batzuk beraien bete behar dituztelako. Azken finean, horrek erakusten duena da minimoetan ari direla lanean eta minimoetatik kanpora igo egin behar dela. Horregatik planak aurreikusten du txandako 6 suhiltzaile izan beharko luketela 48 lanpostu horiek sortuko balira txandako 5 suhiltzailea izango lirateke eta minimo horietatik gora igo lirateke. “*

... Alkatea: *suhiltzaileen Foru Zerbitzu eredia gaur egun indarrean dagoena oraindik 1985 urtekoa da, erabat zaharkitua gelditu da eta ez dio erantzuten gaur egungo*





TOLOSAKO  
UDALA

*errealitateari , pixka bat mozioa komentatzen zen bezala. Horregatik behar beharrezkoa zen orain Batzar Nagusietan aho batez onartutako plan hori. Modernizazio proposamen bat da eta aurreikusten da plantillaren handitzea %/22 batean eta baita ere kokapena erreferentzia egiten dio intzidentzia bat gertatzen denean erantzunaren denborari begira kokapenak ere zer ikusia handia daukala. Egitasmo hau egia esan nahiz eta planarekin denak erabat ados ez egon, ezin da bat batean aurrera eraman eta hor daude guk udaletxeko langileen egonkortzeko planak izan genituen legezko egoera berdinarak. Alde batetik, dakizuen bezala estatuak markatzen du erreposizio tasa zein den, bestea alde batetik, Aldundiak beste giza baliabideen beharrak ere baditu eta horiek ere kontutan izan behar ditu. Gure Udal langileen plana egin genuenean izan genuen egoera berdina berdina. Legealdi honetan OPE jarri zen martxan, lan poltsa bat ere antolatu berri da eta 2019rako aurreikusita dago lan eskaintza publiko berria ateratzea, hori da asmoa behintzat, beti ere Madrilen aurrekontuak onartzen badira. Legezko den bezala. Beraz, egitasmoarekin denok bat egiten dugu denak. . Egitasmoa osoa ezin liteke garatu batera, gradualki izan behar du, baina bat egin dugu txanda bakoitzeko 6 langileen behar horiekin. “*

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBildu): *“Gogoratzea, indarra egitea ideia batean. Badakigu plan guztia ezin dela bat batean aurrera eraman, baina beharrak zeintzuk diren lehenesteko garaian iruditzen zaigula egokiagoa dela lehenestea lanpostuen zabaltze hori egiturak eta infraestruturak eta obrak egin aurretik. Azken finean, orain behar bat eta karentzi bat baldin badago lanpostuetan, hori izatea lehenetsiko dena plan hori aurrera eramateko garaian. Honetaz aparte, badakit eztabaida honetatik kanpo gelditzen dela baina aipatu gabe ez dut utzi nahi. Iñaki Igerategiren egoeraren aurrean gure babes eskaini nahi diodala bere lanera itzultzeko eskubide horretan. “*

Bozketa ondoren Suhiltzaileen langilegoaren ordezkariak hitza hartu du. Bere parte-hartzea DVDn, espedientean jasota dago.

-----

Alkateak mozio transakzionala aurkeztu du, EAJ-PNV eta EHBildu alderdiak adostua.

Mozioak honela dio:

### ***Kalitatezko suhiltzaile zerbitzua Tolosan***

*Gipuzkoako Foru Aldundiak suhiltzaileen zerbitzua modernizatzeko eta egonkortzeko "Gipuzkoa 20-30" bide orria finkatu du txosten batean.*



TOLOSAKO  
UDALA

*Gipuzkoa eta osatzen duten herriak asko aldatu dira azken hamarkadetan eta suhiltzaileen zerbitzuak ere izan du bere garapena. Errepideak, suteak, bizi leku , aldaketak, enpresen egoerak eta abar. Aldagai horiek guztiak kontuan izanda, 80ko hamarkadatik indarrean zegoen zerbitzua berpentsatzea eta birmoldatzea derrigorrezko kontua zen.*

*Lanketa hori guztia gauzatzeko ezinbestekoak izan dira datu estatistikoak, zerbitzuaren beraren bilakaera eta, batez ere, suhiltzaileen parte hartzea.*

*Zerbitzu horrek duen garrantziaz jabetuta, beharrezkoa zen agente guztien parte hartzea diseinu eta garatu beharreko ekintzetan. Hori hala izanda, denen ideiak eta gogoetak izan dira kontuan, eta orain dela gutxi Gipuzkoako Batzar Nagusietan babestutako dokumentuak jasotzen ditu horiek guztiak.*

*Gipuzkoa 20-30 egitasmoak lurralde osoan suhiltzaileen zerbitzua hobetu eta eraginkorrago egingo du, ekintza eta ekimen guztiak finkatuta baitaude. Giza baliabide gehiago, eraikuntza egokiagoak eta inbertsio handiagoak ekarriko dizkio lurralde osoari, bizilekua edozein dela ere.*

- 1. Tolosako osoko bilkurak bat egiten du suhiltzaileen zerbitzua hobetzeko burutu den Gipuzkoa 20-30 dokumentuarekin.*
- 2. Tolosako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio suhiltzaileen zerbitzuak udalerrian kalitatezkoa izaten jarraitu dezala eta aurreikusita <lauden hobekuntza guztiak burutu ditzala.*
- 3. Tolosako osoko bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, dokumentuan - aurreikusita dagoen bezala, giza baliabide gehiago jartzeko hots 6 pertsona txandako, horretarako, zerbitzuan adierazi diren Lan Eskaintza Publiko berriak egitea ahalik eta azkarren.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar,



TOLOSAKO  
UDALA

Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin eta Pedro Manuel Etxabe Zabala.

**Abstentzio botoa:** Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** Gipuzkoako suhiltzaileen zerbitzua indartzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskatzeko mozioa.

**8. Lucas Ugarte Plaza tolosarraren gorpuzkinak "Erorien Harana"-tik herritaratzeko eskaeraren inguruko mozioa.**

**8. Moción sobre la petición de traslado desde el Valle de los Caídos de los restos mortales del tolosarra Lucas Ugarte Plaza.**

Parte-hartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin(PSE-EE): *"Bere duintasuna, errespetua, erreparazioa, hori guztia lortu nahi inongo baimenik gabe, bere gorpuzkinak Erorien Haranera eramán zituzten eta orain lortuko dugu Tolosako hilerria berriz ere bueltatzea."*
- ... Peio Etxabe Zabala (EHBildu zinegotzia): *"Sarri memoriaz hitz egiten dugu, baita giza eskubideaz ere. Badirudi, egun demokrazia batean bizi garela eta zentzu horretan pertsona guztien eskubideak bermatuak daudela, baina ez da horrela. Espainiako estatuan ez zen demokratizazio prozesu erreal bat eman, eta ez zen eman, frankismoaren garaian agintzen zuten berdinek, sistema parlamentario baten bidez agintzen jarraitu zutelako. Horren erakusle dugu Erorien Arana, horren erakusle, milaka plaza eta kaleen izendegiak. Horren erakusle Audientzia Nazionala eta errege familia osoa. Gaurkoan, tolosarra zen Lucas Ugarteren sendiari esker, etorri da gaia mahai gainera. Gaurkoan, familia baten memoria berreskuratu eta justiziaren bidean Tolosako udalak bere babesa eskainiko dio. Lucas, zerbitzu militarra egiten ari zela bando frankistak alistatu arazi zuen, eta sinesten ez zuen balore batzuk babestu behar izan zituen eta bidean hil zen. Hori gutxi ez eta bere gorpua bere sorterritik Erorien Aranera eramana izan zen, 1962an!! Izugarria, bizitzen utzi ez, heriotzara eramán eta gainera gorpua lapurtu! Gaur hemendik familiari babesa eskaintzen diogu, gaur hemendik justizia eskatzen dugu, eta ez Lucasentzako bakarrik. EH Bilduren ustez, hemen bide berri bat irekitzen da eta gure ustez, Erorien Aranean dauden tolosar guztiak berriz ere beraien sorterrian egon daitezten lanari ekin behar diogu, familiei bide hori egiten lagundu. Eta horretarako Eusko Jaurlearitza Memoria Historikoaren inguruko Legea egin dezala eskatzen diogu, familiek, kasu honetan Lucasenak harturiko lan guzti hau arintzeko. Esandakoa, gure ustez, asko dago egiteko, asko, benetako demokratizazio bat emateko, bidean, gure arbasoen, gure aurrekoen memoria, justizia eta erreparazioa gauzatzeko konpromisoa erakusten dugu."*



TOLOSAKO  
UDALA

... Alkatea: *"Hainbat tolosarrek pairatu zituzten gerra zibilaren ondorioak. Zoritxarrez tolosarugarik behartuta gerrara joan behar izan zuten eta hilik gertatu ziren. Famili honen kasuan, Lucas Ugarte kasu honetan, ez zen hor amaitu bere nahigabea, gorpuak ere ez zuen bakerik izan, eta hil da ere trasladatua izan zen. Mozio honekin duintasuna eskatzera goaz, familiari bere babesa eta laguntza eskeintzera. Lehen aipatu bezala badaude horrelako egoeran tolosar gehiago,. Beraz konpromiso ere hartzen dugu zerrenda horri erreparatu eta oraindik dauden senitarteko horiekin harremanetan saiatzeko familia honekin bezala, beste familiekin bide berdina egiteko."*

Jarraian, familiari ongi etorri eman eta bozketa eman ondoren hitza eman die. Parte-hartzea jasota dago DVDn, espedientean.

- - - - -

Peio Etxabe Zabala, EHBilduko zinegotziak mozioa irakurri du:

Mozioak honela dio:

LUCAS UGARTE PLAZA, TOLOSARRAREN GORPUZKINAK "EROIEN ARANA"-TIK HERRITARATZEKO ESKAERAREN INGURUKO MOZIOA

*Lucas Ugarte Plaza-ren oinordekoak honakoa jakinarazi diote Tolosako Udalari:*

*Lucas Ugarte Plaza, hijo de Bonifacio Ugarte Echeverria y Veremunda Plaza Arana, nació el 7 de septiembre de 1914 junto a su hermano gemelo Gregorio, en Ordizia (Villafranca de Ordicia en aquel momento) donde el padre, Bonifacio, miquelete de la Diputación, estaba destinado.*

*Al año siguiente, la familia Ugarte Plaza, se trasladó a la Villa de Tolosa, donde Bonifacio trabajó con cargo de sargento en la sección Caja de Ahorros Provincial, hasta su muerte en 1934. Veremunda Plaza, natural de Aras (Nafarroa), ejercería como encargada maestra de costura en la conocida fábrica de toquillas Dussinague.*

*Arraigados ya en Tolosa, la familia creció hasta llegar a ser trece hermanos y hermanas, dos de las cuales murieron a edad temprana, una de ellas antes de llegar a Tolosa.*

*Lucas, una vez terminados sus estudios, trabajó como mecánico ajustador hasta 1935, año en que fue llamado a quintas, para cumplir el servicio militar obligatorio, y reclutado por el ejército español al cumplir sus 21 años.*

*Así pues, su situación al estallar la guerra era de soldado en el ejército franquista, ya que las tropas que se alzaron en contra de la República se hicieron con la mayor parte*



TOLOSAKO  
UDALA

*del ejército y sus dispositivos. Y como miles de ciudadanos, Lucas murió en el frente del Levante el 23 de julio de 1938 "por efecto de acción de guerra" según figura en su acta de defunción.*

*Veremunda Plaza, madre de Lucas, nuestra abuela, con gran tesón y tras ardua tarea, logró traer los restos de su hijo para darles tierra en su querido pueblo, Tolosa. Hay constancia de su inhumación en el libro de actas del Cementerio Municipal de la Villa de Tolosa con fecha de 7 de noviembre de 1939.*

*Posteriormente, hemos conocido gracias a la información recabada por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, que los restos de Lucas fueron exhumados, para seguidamente ser trasladados al Valle de los Caídos, con fecha 5 de julio de 1962, sin conocimiento por parte de la familia ni constancia documental en el Ayuntamiento de Tolosa.*

*Los sobrinos de Lucas, descendientes directos de la familia Ugarte Plaza, así como su siguiente generación, somos conscientes del gran esfuerzo que realizó nuestra abuela Veremunda hasta conseguir que los restos de su hijo descansaran en paz en Tolosa. Pero pasados 23 años esos restos fueron exhumados sin permiso.*

*Por dignidad y respeto hacia nuestros mayores y para reparar acciones no acordes al espíritu de conciliación, verdad y reparación, hemos decidido presentar la petición y realizar las gestiones necesarias con el fin de conseguir que los restos de Lucas Ugarte Plaza vuelvan a reposar en Tolosa, de donde nunca debieron salir.*

*Puesto que era vecino de Tolosa y de su cementerio municipal se llevaron los restos, en nuestra opinión, es de correcto proceder que el Ayuntamiento tome parte avalando y apoyando las actuaciones y cuestiones que surjan en el desarrollo del proceso, así como aclarar las circunstancias de los hechos acaecidos depurando posibles responsabilidades de lo ocurrido.*

*En este sentido, es intención nuestra enviar la petición de restitución a Tolosa de los restos de Lucas Ugarte, a la Dirección General de Patrimonio Nacional, así como al ministerio de Justicia del Gobierno de España, acompañada de la documentación exigida, de la cual ya disponemos, junto con la posible y esperada decisión de apoyo del Ayuntamiento de Tolosa*

*Esperamos contar con la adhesión y apoyo del Ayuntamiento de Tolosa y solicitamos su participación en las cuestiones que surjan una vez realizada la petición al Ministerio de Justicia, así como a la Dirección General de Patrimonio Nacional dependiente del Ministerio de Presidencia.*

*Los hermanos y hermanas de Lucas Ugarte Plaza han fallecido durante estos años, por lo que somos los y las sobrinas y los y las sobrinas nietas que a continuación nos presentamos, las que realizamos la petición para que sus restos vuelva a casa:*

*Veremunda Ugarte Gracia, sobrina, hija de Miguel Ugarte Plaza.*



TOLOSAKO  
UDALA

*Juan Ramón Insausti Ugarte, sobrino, hijo de Severina Ugarte Plaza.*

*María Soledad Etxenike Ugarte, sobrina, hija de María Soledad Ugarte Plaza.*

*María Koro Ugarte Zubiarrain, sobrina, hija de Gregorio Ugarte Plaza.*

*Nerea Ugarte Ibarrolaburu, sobrina, hija de Juan Ugarte Plaza.*

*Viriginia Ugarte Ibarrolaburu, sobrina, hija de Juan Ugarte Plaza.*

*Miren Karmele Ugarte Andonegi, sobrina, hija de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Maria José Ugarte Andonegi, sobrina, hija de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Izaskun Ugarte Andonegi, sobrina, hija de Nicasio Ugarte Plaza.*

*José Manuel Ugarte Andonegi, sobrino, hijo de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Jesús María Ugarte Andonegi, sobrino, hijo de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Jon Castillo Etxenique, sobrino-nieto, hijo de María Soledad Etxenique Ugarte y nieto de María Soledad Ugarte Plaza.*

*Mattin Atorrasagasti Ugarte, sobrino nieto, hijo de Miren Karmele Ugarte Andonegi y nieto de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Ekhiñe Atorrasagasti Ugarte, sobrina nieta, hija de Miren Karmele Ugarte Andonegi y nieta de Nicasio Ugarte Plaza.*

*Guzti honegatik, Tolosako Udalak honako akordio hartzen du:*

## **AKORDIOA**

**LEHENA.**- Laguntza ematea Lucas Ugarte Plazaren familiari Espainiako Gobernuari egin dion eskaera dela-eta udal hilerrira ekar ditzaten Lucas Ugarte Plazaren gorpuzkiak, zeinak Erorien Haranera eraman baitzituen erregimen frankistak 1962ko uztailearen 5ean, familiak jakin gabe eta hartarako baimena eman gabe.

**BIGARRENA.**- Erabaki hau bidaltzea Justizia ministro Dolores Delgado Garcia andreari eta Memoria Historikoko zuzendari orokor Fernando Martinez Lopezi, jakitun izan daitezen eta dagozkion ondorioetarako.



TOLOSAKO  
UDALA

**HIRUGARRENA.-** *Baimena ematea Tolosako alkateari Osoko Bilkuraren akordio hau betetzeko beharrezkoak diren agiriak sina ditzan*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Lucas Ugarte Plaza tolosarraren gorpuzkinak "Erorien Harana"-tik herritaratzeko eskaeraren inguruko mozioa.

**9. Frankismoaren aurkako mobilizazioetan, bere garaian parte hartu izanagatik Tolosaldean torturatuak izan ziren herritarren aldeko elkartasuna adierazteko.**

**9. Moción en apoyo de las personas torturadas en Tolosaldea por participar en movilizaciones contra el franquismo.**

Parte-hartzeak:

...Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Gure elkartasun osoa adierazi nahi dugu diktadura frankistan egindako gizartearen aurkako krimenarengatik egia, justizia eta erreparazioa, hori lortu arte."*

...Peio Etxabe Zabala (EHBildu): *"Aurreko puntuan adierazi dugun moduan, Espainiako demokratizazioa ez zen inoiz benetakoa izan, inoiz. Kromo aldaketa xume bat izan zen, dena berdin gelditu zedin, ezer aldatu gabe. Horren isla, oraindik horrenbeste krimen, horrenbeste bortxa egin zituzten torturatuak guzti horiek lasai asko daudela jakitea. Hauetako asko gainera, kondekoratuak izan dira, hauetako asko ohorez jasoak dira oraindik, egun. Argi dugu, duela zenbait urte Argentinako kereilan babesa eman genion moduan, gaurkoan ere ibilbide berri honi gure babesa emango diogula. Ez dugulako onartuko inoiz torturatuak hauen inpunitatea mantentzea. Tortura betidanik estatuak izua sortu eta auto salaketak lortzeko bidea izan da. Mina ematen digu, oraindik orain, hau eman ez dela edota*



TOLOSAKO  
UDALA

*iraganeko gaia dela adierazten duten zenbait eragile politikoen azalpenek. Tortura, herri honetako belaunaldi gehiegik ezagutu dute, Melitonek eginikoak izan edota oraindik egun uniformeak egunero jartzen duten funtzionarioen bidez jasandakoak izan. Tortura, kolore guztietako uniformatuek burutu dute gainera, izan urdin, berde zein gorri. Horregatik, sarri adierazi moduan, EH Bilduk torturatua izan den horrengandik gertu egongo gara eta nola ez baita gaurkoan mozio hau babesten ere.”*

... Alkatea: *“Esan dena guzti horretaz gaian aipatu baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri duela akusazio gisa aurkeztuko dela Argentinako jurisdikzioan abiarazitako prozedura horretan. Diktadura frankista burututako gizartekeriaren aurkako krimenagatik zigor erantzukizunak eta beste edozein eratako erantzukizunak argitzeko. Guk mozio honekin Justizia izan ez zuten herriko zein eskualdeko herritarrei babesa eman nahi genioke.*

-----

Alkateak mozioa irakurri du.

Mozioak honela dio:

*“Urtarrilaren 16an, Tolosaldeko biktima torturatuen deklarazioen aurkezpena izan da Tolosako Epaitegian. Elixabete Nosellas, Jokin Sarasola, Martín José Zabala, Juan Goñi, José Begiristain eta Juan Arangoa, azken hau bere arreba Amparok, egun hilik, sufritutako torturen lekuko, izan dira Justizia espainiarraren esku utziko dituztenak Jesus Muñecas Aguilar kapitainak, beste guardia zibilekin batera, garai haietan frankismoaren aurkako mobilizazioetan Tolosan, Donostian edo Zarautzen ari ziren milaka gazteei izu zitala sartzeko asmoekin egin zituzten ekimen kriminalen salaketak.*

*Halaber, deklarazio egunean Tolosako Epaitegiaren aurrean eguerdiko 11:00etatik aurrera udal honetan ordezkaritza duten alderdi guztien gure elkartasuna modu baketsuan adierazteko aukera izan genuen.*

## **EBAZPENA**

1. Tolosako Udalak biktima hauei eta beraien sendi guztiei bere elkartasuna adierazten diete EGIA guztia ager eta JUSTIZIA osoa egin dadin 40 urteko diktadurapean





TOLOSAKO  
UDALA

*frankistek gizateriaren aurka egindako krimenagatik, Memoria osoa nahi badugu berreskuratu, Baketa eta Elkarbizitza behar bezela bideratzeko.*

2. *Halaber, kontutan izanik, Gipuzkoako beste hainbat herritan gertatu zirela horrelako ekimen kriminalak, beste edozein epaitegitan biktima gehiagok aurkeztu ditzaketen salaketekin edo kereilekin ere gure elkartasun irmoa adierazten diegu une honetatik, baita izan daitezkeen elkarretaratze eta adierazpen publiko baketsuekin ere. Helburuekin eginak izango baitira: frankismoarekiko Egia guztia eta Justizia osoa aldarrikatzea.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Frankismoaren aurkako mobilizazioetan, bere garaian parte hartu izanagatik Tolosaldean torturatuak izan ziren herritarren aldeko elkartasuna adierazteko mozioa.

Lore Agirre Zipitria, EHBilduko zinegotzia irten egin da.

### **10.Galderak eta eskaerak.**

### **10.Ruegos y preguntas.**

Parte-hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu); *“Ez da galdera bat, ezta eskaera bat ere, gogoeta baizik. Venezuelan egun daukagun egoera da gaia. Gure herria, Euskal Herriak Venezuelarekin aspaldian izan ditu harremanak, ez bakarrik, Bolibar askatzailea euskal jatorrikoa zelako baizik eta gerra zibilaren ondoren mila ihes joandako mila euskaldunak daukagu, gerra ondoren joandakoak, eta 20. hamarkadako krisi larri hartan ere hara lan bila joandako ehunaka milaka euskaldun egon ziren. Kezkatzen gaitu nolabait, nazioarteko harremanetan ohian legea nagusitzen ari den garai honetan, herritarren gaineratik ultimatum eta mehatxuen*



TOLOSAKO  
UDALA

*bidez, herri baten etorkizuna mugatu nahi izana. Garbi dago Venezuelan legitimitate borroka bat dagoela, bi legitimitatearen arteko borroka, biak demokratikoki aukeratutako legitimitateak bidez batez. Bi legitimitate horien arteko gatazka elkarrizketaren bidez bakarrik lotu daitekeela uste dugu. Bestela, horren sufrimenduak eta ondorioak herritarrek jasango dute. Eta ondorioak ez dira, ez onak, ezta positiboak izango Beraz, dei egiten diegu bi parteei eta kanpoan dauzkaten nazioarteko babes horiei utz dezatela oihanen legea nazioarteko harremanetan, lurperatu dezatela, Venezuelan dauden bi legitimitate horien arteko gatazka konpontzen bidea jartzen ahaleginak egin dezatela eta eztabaida zintzoa bultzatu.”*

Jarraian bertaratu diren herritar batzuei hitza eman die. Tolosaldeako Osasun arretaren egoeran inguruko parte hartzea DVDn, espedientean jasota dago.

Besterik gabe, 21:30ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA